

# Milaka lagun bildu zituen Bilbon presoaren aldeko manifestazioak

Hamar egunez Euskal Herria zeharkatu duen 'Ttipi-Ttapari' amaiera eman zion

**E**uskal presoaren eta errefuxiatuen aldeko etengabeko oihuekin, milaka lagun bildu zituen atzo Bilbon hamar egunez Euskal Herria zeharkatu duen 'Ttipi-Ttapa', presoaren aldeko ibilaldiari amaiera eman zion manifestazioak.

Z. ZAMAKOLA / BILBO

Manifestazioa arratsaldeko bostak pasatuxe hasi zen Bilboko Gurutz Sakratu plazan, eta ordu t'erdi beranduago amaitu Arenalean. Halere, manifestazio burua martxan hasi eta ordubetara, Zabalburu plaza pasata zutela, oraindik azkeneko partaideak martxan jartzeke zeuden.

Buruan 'Iparraldeko presoak Euskadira' zioen pankarta zegoen, eta ondoren Iparraldeko presoaren senideak. Pankarta honen ondorenean, ostera, Euskal Herriko auzo eta herri guztietako pankartak, guztiek ere testu berarekin, lekuaren izena aldatuz bakarrik. Pankarta bakoitzaren ostean herri edo auzo horretako presoaren senideak.

Preso ohiek segitzen zieten pankarta hauei; atzean 'Ttipi-Ttaparen', Iruñean edo Maulen hasita, Euskal Herria zeharkatu duten bi taldeetako partaideak eta azkenik, manifestazio bera. «Ttipi-Ttapa, amnistia», «Presoak kalera», «Amnistia» eta «Errefuxiatuek Euskadin bizi behar dute» izan ziren oihurik entzunenak. Jende multzoa Arenalera heldu ahala, pankarte borobil handia egin zuten, barruan 'Ttipi-Ttapa' martxako partaideak zirela.

## AABB: «Kontuz ibili euskal presoari ile bat ukitzearekin»

Z.Z. / BILBO

Amnistiaren Aldeko Batzordeak abisua eman zien Espainiako Gobernu ordezkariei: «kontuz ibili euskal presoari ile bakar bat ere ukitzearekin, gure herriak erantzuten jakingo bait du».

Juan Mari Olano, Mikel Korta eta Gari Arriga AABBetako ordezkariek manifestazioaren ondoren emaniko prentsaurrekoan azaldu zuten arriskua dagoela Sevillako gertakizuna aitzaki hartuta euskal presoaren aurkako errepresioa areagotzeko, eta hain zuzen ere gartzela barruetan GALen antzekoa sortzeko arriskua azpimarratu zuten.

AABBetako ordezkariek gaitzetsi egin zuten Sevillako gartzelan lehergailuak eztanda egin ondoren preso politikoko guztiak isolamenduan ipintzeko erabakia. Prentsaurrekoan azaldu zuten bezala, preso politikoko arruntengandik babesteko izan zen aitzakia erabili arren, benetako arrazoia preso politikoen aurka ihardutea



Presoaren senideak, argazkiak eskuan, joan ziren manifestazioaren buruan.

J. SIMAL

**AMNISTIA, BALORE SOZIALA** Manifestazioa Arenalera iritsita, Amnistiaren Aldeko Batzordeetako ordezkariek hitzegin zuten, Amnistia «Euskal Herriak eta Espainiak behar duten balore sozial eta politikoa» dela ziurtatuz. «Gaur kale hauetan altxatu den garraxia, amnistia eta askatasuna, preso eta errefuxiatuak etxera itzultzea eta hori eragin duten faktoreak gainditzea ezinbestekoa bait da bizitza politikoa normalizatzeko», gaineratu zuten.

«Ttipi-Ttapa Amnistia» oihuek

tarteka hitzaldia moztzen zutela, hizlariak manifestazioak bildutako jende multzoa azpimarratu zuten, Euskal Herriak eskatzen duenaren adierazgarri dela esanez eta errepresioa gaitzetsiz.

«Gaur, amnistia eta askatasuna erreibindikatu eta aldarrikatuz, errepresioa bide eta tresna inmorala izateaz gain, alferrikoakoa ere badela erakutsi dugu, eta sufrimendua eta mina handitzea baino ez duela lortzen.

AABBetako ordezkariek Felipe Gonzalez eta François Mitterrand Espainiako eta Frantziako lehenda-

kariet leporatu zuten errepresioaren eragile izatea, «gure herriaren oroi-menean borroaren titulu eta izarekin gordeko den Felipe Gonzalez; Argeliako herriaren askapen prozesuaren aurka Barne Ministro bezala su eta gar ihardun zueneko garaiki zahartzaroan gogoratzen hasi den François Mitterrand».

Era berean, euskal klase politikoari «erantzukizun gero eta handiagoa» hartzea leporatu zion. «Zer esan bestela, Ardantzak Llica D'Amunteko mendekua, hilketatzat hartzen duenean?», galdetu zuten AABBetako ordezkariek.



Bilboko Jesusen Bihotzatik hasi eta Arenalean amaitu zuten.

J. SIMAL

'Ttipi-Ttaparen' ibilbidean herrietan izandako ongi etorriak eta partehartzeak azpimarratuz. Guzti hau dela

eta, «herriak amnistiaren aldeko jarri garbia» erakutsi duela iritzizioten.

## Frantziako polizia eta gendarme ugari Baigorri inguruak miatu zituzten atzo

BAIONA

Frantziako polizia eta gendarme ugari ibili zen atzo Baigorri inguru-  
neak miatzen. Helikoptero eta mendiko ibilgailuak erabili zituzten, arratsaldeko lehen orduan bertan behera utzi zuten polizi operazioan.

Polizia eta gendarmen mugimendu honen arrazoia ez zen iturri ofizialetatik zehaztu, baina bertsiodesberdinak zabaldu ziren. PAFeko polizia batek azaldu zuenez, ETA erakundeko komando batek muga pasako zuelako susmoa zutelako zebiltzan inguruetan. Ostiral gauean Irati aldean hasi zituztela miaketak eta Ibardin mendian ibili zirela atzo zehaztu zuten iturri honek. CRSko iturrien arabera berriz, maniobra arrunt bat izan da PAFeko polizia eta gendarmeek burututako miaketa.

Efe agentziak jasotako informazioaren arabera, Francisco Mujika Garmendia atxilotzea zuten helburu. Baigorri inguruko mendietan ETako beste zenbait kideekin batera zebilen susmoa zutela eman zuten aditzera.

Berrehun eta berrogeitamar polizia eta gendarme inguruk ekin zioten operazioari iturri honen arabera, eta «espero ziren helburuak lortu ez zirelako» utzi zuten.

Hala ere, iturri ofizialetatik ez zen mugimendu honen inolako zehaztasunik ezta arrazoirik eman, eta harridura zen nagusi Baigorriko inguruetan.

## IK-k ukatu egin du Baionako bonbarekin zerikusirik duenik

BAIONA

Iparretarrak (IK) Gure Irratiari eta Radio France Pays Basque irratiari egindako deien bidez ukatu egin du bere erakundeak zerikusirik duenik Baionako portuan frantziar Poliziak atzo goizaldean indargabetu zuten lehergailuarekin.

Baionako portuan arrantzun-txi batean lehergailu bat aurkitu zuten eta Poliziari abisua eman ondoren, honek indargabetu zuten. Lehergailua camping-gas bonbona batek osatzen zuten eta erloju-sistema bat zuten. Iparretarrak erakundeak etxegintza bulegoen kontra jartzen dituen bonben sistemaren antzerakoa zen Frantziako Poliziaren arabera, eta horregatik lehenengo momentuetan IKrena ote zitekeen aipatu zuten.

Itsasuntzia Baionako Itsas-Armadako Komandantziaren ondoan zegoen amarratuta eta hori ote zitekeen helburua planteatu zen ere.

Itsas-Armadako Komandantziak irrati arrantzun-txi guztiei miatzeko eskatu zuten, lehergailu gehiago jarri egon zitekeelako beldur. Lehergailua zuten untxia ez zen arrantzun-tzi arrunta, baizik eta pertsona batena. Gainera, Baionan pakete susmagarri bat agertu zen etxegintza bulego baten ondoan. Poliziari abisatu ondoren, honek lehertarazi egin zuten eta egiaztatu ahal izan zen ez zela lehergailua.